



ikastolak



ZANGOZAKO IKASTOLA
ZANGOZA



Laila Lacuey

ATLETA

“Olinpiadetara joatea da nire ametsa”

Laila Lacueyk lorpen ugari eskuratu ditu atletismoaren alorrean. Zangozako Ikastolako ikasle ohia, berarekin hitz egiteko parada izan dugu berriki.

📍 Zangozako Ikastola

ZANGOZA – Laila Zangozan bizi izan zen 14 urte izan zituen arte, eta Zangozako ikastolan aritu zen. Orain atletismoan ari da eta oso ongi dabil, beraz, Zangozako ikastolatik elkarriketa hau egin diogu, gure omenaldi umila! Ondo segi Laila eta zorte on!

Zure kirolek, zer da gehien gustatzen zaizuna?

–Atletismoa praktikatzek gauza on asko ematen dizkit. Gustukoan ditudan gauzen artean leku berriak bisitatzeko eta jende berria ezagutzeko daude. Benetan lagun berri asko egin ditut kirol honi esker eta guztiz eskertuta nago.

Zergatik aukeratu zenuen atletismoa eta ez beste kirolen bat?

–Aurretik hainbat kirol praktikatzeko nituen. Baina nire LH-ko ikasketak Zangozako Ikastolan bete nituen eta bertako Gorputz Heziketako irakasleak bai niri, bai nire gurasoei, aipatu zigun zer nolako gaitasuna nuen kirol honetan aritzeko. Hori dela eta, Iruñera jo nuen denboraldi batean, probatzeko. **Zenbat sari irabazi dituzu? Zenbat urterekin irabazi zenuen zure lehenengo domina?**

–Espainiako txapelketetan 19 domina irabazi ditut gaur egun arte eta Nafarroako mailan irabazitakoak ez ditut zenbaturik, nire logelan zehar gordeta eta beste hainbat galduta ditut eta. Nire lehenengo domina Espainiako txapelketa batean lortu nuen 2014ean. Hura izan zen nire lehenengo txapelketa nazionala. **Zein izan da atletismoan zure denborarik hoberena?**


–Ezin konta ahalak dira atletismoarekin pasa ditudan momentu onak, baina guztien artean, agian, pasa den urteko sasoi amaieran Espainiako txapelketa absolutura joan nintzenekoa dago. Honetan, 4x100-eko frogan parte hartu nuen nire taldekideekin batera eta bigarren postua lortu genuen. Izugarritzko sorpresa ona izan zen guztiontzat eta kristoren poza sentitu nuen domina hori irabazterakoan.

Zenbat urte daramazu korrika egiten? Atletismoarekin jarraitu nahi duzu?

–2013 urtearen hasieran, behin edo bitan joan nintzen Iruñera atletismoan aritzeko, lehen aipatu dudana bezala, baina nire benetako lehenengo sasoi 2014 urtean izan zen, beraz, bost urte daramat korrika eta salto egiten. Noski, ahal dudana guztian arituko naiz kirol honetaz disfrutatzen.

Zein da zure gustuko lasterketa mota? Eta zure sari hoberena?

–Atletismoan baditugu bi sasoi mota, bat hotz handiko hilaletetan, Estalitako Pista sasoi (“temporada de Pista Cubierta”, gaztelaniaz); eta maiatzetik aurrera, gutxi gora-behe-



Laila Lacuey.

ra, Aire Zabaleko sasoi (“temporada de Aire Libre”). Honen arabera, lasterketarako distantziak aldatu egiten dira. Nik, pertsonalki, Estalitako Pista sasoiaren distantzia motzak nahiago ditut: 60 metroko lasterketak dira. Nahiz eta, orokorrean, Aire Zabaleko sasoi gustukoena izan. Sari hoberenari dago-kionez, orain ez nintzateke gai izango sari bakar bat aukeratzeko. Sari guztien atzealdean lan gogor bat dago eta guztiak maila berdinean estimatzen ditut, lehenengo edo bigarren postukoak izan arren. **Noiz hasi zinen entrenatzen korri-**

kalaria izateko?

–Oker ez banago, 2015-16 urteko sasoiaren hasi nintzen espreski abiadurarako entrenatzen, baita jauzi horizontalak egiten ere.

Zein izan da zure lasterketarik zailena?

–Agian, internazionala izan nintzen lehenengo aldian, Tbilisira, Georgiara, joan nintzenean. 100 metro-tako lasterketan parte hartu nuen eta esperientzia gabea nintzen garai hartan. Aldiz, bertako neskatoak guztiz profesionalak ziruditen... Psikologikoki, ez nengoen prestatu eta benetako erronka izan zen.

BESTE KIROLARIAK

MAIALEN CHORRAUT

● **Herria.** Lasarte-Oria.

● **Jaiotze data.** 1983/03/08k

● **Kirola.** Piraguismoa (K1 Slalom)

● **Lorpenak.** 3 joko olinpikoetan parte hartu du: Pekin (2008), Londres (2012) eta Rio de Janeiro (2016). Urrezko domina Rio de Janeiro. (2016). Brontzezko domina Londresen (2012).

Gustatuko litzaizuke olinpiadetarara joatea?

–Atleta guztiaren ametsa da hura. Bertara iristea da nire helmuga altuena etorkizunari begira.

Noiztik gustatzen zaizu kirola?

–Txikitan hainbat kirolatan aritu nintzen, baina ez zizkidaten arreta deitzen, egia esan, ez nintzen ona ezertan. Baloiak erabiltzen dituzten kirolek, betidanik, oso gaizki eman zaizkit eta hauek jolastea gorroto izan dut beti.

“Atletismoak gauza asko eman dizkit, gustukoan ditudanen artean leku berriak ezagutzeko eta lagunak egitea”

“Orain nire bizitzaren zutabe garrantzitsua da atletismoa, denbora gehien eskeintzen diodana ikasketekin batera”

Zein da gehien gustatzen zaizun kirola, atletismoaz aparte?

–Praktikatzeko ez, baino saskibaloia eta eskubaloia ikustea pilo bat gustatzen zait. Lagun ugari ditut bi kirol hauek jolasten dituztenak eta haien partidak ikustea liluratsen nau, zer esan kirolari profesionalen partidak.

Zer esan nahi du kirolak zure bizitzan?

–Kirola lagunak dira, emozioak dira, momentu txarrak eta onak, esperientzia berriak. Nire burua gainditzeko era polit bat da. Orain, atletismoa nire bizitzaren zutabe garrantzitsua bat da, alegia, denbora gehien eskaintzen diodan gauza da, ikasketekin batera. Kirol honekiko inplikazio handia dut eta kirolak emaitza onak ematen dizkit bueltan, eskaintzen diodan lanarengatik. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Nori esker hasi zen atletismoan Laila Lacuey?
 2. Ona al da Laila baloia erabiltzen dituzten kirolatan?
 3. Zein da Laila Lacueyren lasterketa mota gustukoena? hobekien egiten duen pertsonaia?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Jon Salanueva (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Mikel Jubera (Baztan Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezela, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzeko dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.